

# ek!

eta kitto!  
euskara elkarteak

2023ko irailak 15 · 1282 zenbakia

## ETORKIZUN HOBEAGO BATEN BILA



2023-2024 IKASTURTEA

### MATRIKULA ZABALIK

- Ordu-tegi eta erritmo malguak
- Tarifa bereziak
- %20, %50, %75eko deskontuak



Irailaren **28**ra arte

PORTALEA - Bista Eder, 10  
943 70 09 12 [euskaltegia@eibar.eus](mailto:euskaltegia@eibar.eus)



Eibarko Udala  
Euskaltegia



# SASOIKO FRUTA ETA BARAZKIAK EZAGUTZEN

## VI. LEHIAKETA

Untero antolatzen dugun argazki/arte lehiaketan parte hartzerako gonbidatu nahiz zaltuteguz. Lehiaketa honen gai nagusia "Sasoiko fruta eta barazkiak ezagutzen" da.

2023KO IRAILAREN 27RA ARTE

IRABAZI KONTSUMO  
ARDURATSUKO EIBAR  
ERALDATUZ MAPAKO  
SALTOKIETAN KONTSUMITZEKO  
100€-RARTEKO BONUAK.

100€

-ARTEKO SARRAK

Lehiaketak bi diziplina artistiko desberdin eta hiru kategoria ezberdin izango ditu:

-**Teknika mistak** (obra horietan akuarelekin, collageekin, argizlariekin eta/edo koloretako lapizekin egiten dira). Bi kategoria izango ditu:

- DBHko 1. eta 2. mailako ikasleak
- DBHko 3. eta 4. mailako ikasleak

-**Argazkigintza**. Nahiz duten guztiek parte har dezakete.

Bidali ezazu zure obra 2023ko irailaren 27a baino lehen honako helbide honetara: [lehiaketaegoalizia@gmail.com](mailto:lehiaketaegoalizia@gmail.com)



LAGUNTZAILEAK



Informazioa eta oinarriak  
[www.egoalizia.org](http://www.egoalizia.org)



# Sagardo Eguna...

URRIAK 7  
ZAPATUA  
Egun osoko  
jaia Untzagan!



## ZOKKETA BEREZIA

LUXUZKO ASTEBURUA DONOSTIAN  
(URRIAK 28 eta 29)

Hotel Londres: 2 lagunentzako  
gaua, afaria eta armosua  
Arima Hotel & Spa:  
Spa 90 minutu + Bazkaria

## RIFAK SALGAI

KALEAN ETA HONAKO TOKIETAN

- ISASI Okindegia
- ZABALETA Okindegia
- BOLINTXO Okindegia
- MARIA OSPITXAL
- UNTZAGA Prentsa
- ECHETTO Prentsa
- MUGIKA Harategia
- OTEGUI Harategia
- KULTU Taberna
- ZUBI GAIN Taberna
- GURIDI Taberna
- IZADI Loradenda

# ...badator!

# Jarraitu gaitzazu!



@etakitto



etakitto.eus

Eguraldiari buruzko iragarpenak bete ziren astelehenean eta prezipitazioak eta ekaitzak protagonista izan ziren arratsaldean. Euria gogotik egin zuen Bizkaian eta Gipuzkoan, eta txingorra bota zuen hainbat lekutan, baita Eibarren eta Ermuan ere. Herriko kaleek urez gainezka egin zuten Eibarko eta Ermuko auzo askotan.



#### ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkartea

#### HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

#### TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

603 598 285

FAXA 943 20 28 72

#### ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

#### ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

#### ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

#### ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

#### KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

#### ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

#### DISEINUA

Maku Oruezabal

#### MAKETAZIOA

...eta kitto! astekarria

#### HIZKUNTZA ARDURA

Maider Aranberri

#### PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

#### TELEFONOA

943 20 67 76

#### AZALEKO ARGAZKIA

Aldatzen /Egoaizia

#### BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

#### TIRADA

7.800 ale

#### INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

#### COPYRIGHT-A

...eta kitto!

#### LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta  
Gipuzkoako Foru Aldundiak  
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

# Eskutitzak



## Gutunen atalerako oharra

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin, eta hala sinatuta kaleratuko dira. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia ere helarazi behar zaigu. Salbuespen modura, identifikagarriak diren elkarte, kolektibo edo taldeen kasuan, horien izenean sinatuta argitaratu ahal izango dira gutunak.

Idatzitako testuek ez dituzte 1.400 karaktere (20 lerro) baino gehiago izan behar, tarteak barne. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero.

Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik. Erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabakitzeo eskubidea bere egiten du.

Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak postaz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez, erredakzioa@etakitto.eus helbidera.

**Erredakzioa**

# Hortik esanak



Hitzen balioa/zentzua aldatzen da garaiak aldatzen diren legez. ETAk bere jarduera armatua bukatzeaz eman zuenean bake prozesua delakoa abiatu omen zen. Berria, Gara/Naiz, Argia eta abar motz batek baino ez zuen bake prozesua terminoa erabili; EITB-k ere ez dut uste bake prozesua zegoela adierazten zuenik. Gainerako guztiak bake prozesua zegoenik ukatu zuten. Orain berri Berriako zuzendari ohi Martxelo Otamendik Naiz-en erran duenez, “ez da bake prozesurik izan”. Argia-n ari nintzen bake prozesua delakoa abiatu zenean. Bada, bake prozesurik ez zegoenaren ikuspuntutik idaztea bake prozesua ez zegoela ziotenen aldean paratzea zen.

**MIKEL ASURMENDI, liburu-iruzkingilea**

Batzuek diotenez, espainiar unionistek –eta bereziki Bizkaiko eta Gipuzkoako egunkaririk salduenak, haurride eta elkarren arteko konplize– gogotik eta asmo txarrez xaxatzen omen dituzte Gipuzkoako eta Bizkaiko zaleen arteko xextra ezinikusi horiek, azken batean euskaldunon arteko banaketa indartzen dutelako eta, horrela, Espainiako Ligaren itzalpean, espainiar egiten gaituztelako. Ez da oinarrikerik gabeko tesia. Baina, horretaz jabetuta ere, zaleok -askok behintzat- badugu barru-barruan dinamika horretatik airoso irtetea eragozten digun zerbait.

**JUAN LUIS ZABALA, idazlea**

Beste kiroldegi bat eraikitzeo asmoa daukagu Eibarren, eta aurreproiektu hori lantzen ere ari gara; hori da egun daukagun kirol proiekturik garrantzitsuena. Finantzaketa bila gabiltza orain. Berrogei urte baino gehiago dauka Ipuruako kiroldegiak, nahikoa zahartuta gelditu zaigu, eta berritu egin beharra daukagu. Baina, igerilekuari dagokionez bereziki, beste kiroldegi bat eraikitzeo behar handia daukagu. Arratsaldean batez ere, ia ezinezkoa da kiroldegian igeri egitea.


**JON IRAOLA, Eibarko alkatea**

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**ORDUAN →** Une jakin batean. “Orduan bai izango dala gure poza!”

Sasoian, ordurako. Gaztelerazko ‘puntual’. “Arnas estuka eta ailegatu ezinik, baiña azkenian heldu naiz orduan”.

Beraz, kasu horretan. “Ezetz? Da hori zaratori zerena dok pa orduan?”



Idurre Iriondo

## Farmaziak

<b>BARIXAKUA 15</b>
<b>EGUNEZ   Barandela</b> (Z. Agirre, 4)
<b>ZAPATUA 16</b>
<b>EGUNEZ   Lekunberri</b> (Isasi, 31)
<b>DOMEKA 17</b>
<b>EGUNEZ   Castaño</b> (J. Etxeberria, 7)
<b>ASTELEHENA 18</b>
<b>EGUNEZ   Elortza</b> (J. Gisasola, 18)
<b>MARTITZENA 19</b>
<b>EGUNEZ   Zulueta</b> (San Agustin, 5)
<b>EGUAZTENA 20</b>
<b>EGUNEZ   Mendinueta</b> (Urkizu, 6)
<b>EGUENA 21</b>
<b>EGUNEZ   Barandela</b> (Z. Agirre, 4)
<b>BARIXAKUA 22</b>
<b>EGUNEZ   Zulueta</b> (San Agustin, 5)

**GAUEZ BETI**, 2023an,  
**Castaño** (J. Etxeberria, 7)

## Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekuia	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

## Hildakoak

- **Milagros Makazaga Larrañaga**. 89 urte. 2023-09-02.
- **Cesareo Gomez Cid**. 92 urte. 2023-09-02.
- **Miren Etxeberria Etxeberria**. 52 urte. 2023-09-02.
- **Maria Asun Hernando Franco**. 82 urte. 2023-09-03.
- **Maria Teresa Cortijo Romo**. 94 urte. 2023-09-04.
- **Xabier Otaño Elorza**. 72 urte. 2023-09-04.
- **Roberto Alzelai Bengoa**. 85 urte. 2023-09-07.
- **Benito Castaño Teruelo**. 67 urte. 2023-09-08.
- **Ruben Gonzalez Pascual**. 52 urte. 2023-09-08.
- **Maria Carmen Ansola Ordorika**. 74 urte. 2023-09-09.
- **Maria Angeles Arizaga Bustinduy**. 67 urte. 2023-09-10.
- **Javi Mediavilla Pascual**. 63 urte. 2023-09-10..

## Jaiotakoak

- **Jara el Batioui**. 2023-08-30.
- **Naira Chouiakh**. 2023-08-31.



## Gabilondo birgaitzeko aurreproiektua aurkeztu du Udalak

Barakaldo eta Barrena kaleen elkargunean dagoen Hijos de Gabilondoren partzela birgaitzeko aurreproiektua aurkeztu du Udalak Hirigintza Batzordean aste honetan. Martitzenean egindako prentsaurrekoan Jon Iraola alkateak eta Ana Telleria Hirigintzako zinegotziak azaldu zutenenez, Hirikiten hiriaren ikerketarako elkarteak prestatu duen aurreproiektuarekin, “Urkizu-Barrena aldeari gunee berri bat eskaini nahi diogu, jarduera ekonomiko eta soziokulturalak garatzeko eta aisialdirako. Aldi berean, balioan jarri nahi da azpiegituraren ondare-izaera”.

Jarduketa horren garrantzia ere nabarmendu dute: “Gobernu-taldearen helburu nagusietako bat

hiriaren ekialdea biziberritzea eta modernizatzea da. Horretarako, funtsezkoa da Barrena kalea biziberritzea, eta gaur aurkeztu duguna funtsezko lehen urratsa da. Aurreproiektua bat dator gunee honetarako bilatzen dugunarekin: berroneratze bat nahi dugu jarduera ekonomikoa erakartzean oinarritutakoa, funtzio anitzeko espazioekin, eta jolas- eta aisialdi-eremuekin konbinatua. Urkizu-Barrena aldean zentralitate berri bat sortzea nahi dugu, hirigunearen desindustrializazioan aurrera egitea eta bizilagunei espazio publiko zabalagoa eta berdeagoa izateko aukera ematea”.

Aurreproiektuan jasota dagoenari jarraituz, 1938ko etxebizitza-

eraikina birgaitu eta ondoren egin ziren albo-handitzeak bota egingo dira, eraikinaren jatorrizko konfigurazioari eutsiz. Horrek aukera emango du espaloia zabaltzeko, aparkaleku berri bat egiteko (obra gauzatzean kenduko diren tokiak konpentsatzeko) eta, gainera, adierazi den bezala, funtzio anitzeko espazioak eta jolaserako eta aisialdirako gunee egiteko, bai Barrena kalean bertan, bai eraikinaren estalkian.

### 2025. urte amaierarako

Egin nahi den jarduketaren aurrekontua 7,5 milioi euro ingurukoa izango dela aurreratuta dute. Hala ere, exekuzio-proiektua datorren urteko ekainean-edo lehiaketara ateratu nahi dute, eta orduan finkatuko da lanen kostua. Lanak 2025eko abendurako amaitzea nahiko luke. Bestalde, eta agerraldian azpimarratu zutenenez, Eibarko Udalak 5 milioi euro inguruko dirulaguntza jaso du Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Sailburuordetzaren eskutik.



## Euskotrenek neguko ordutegia ipini du martxan

Euskotrenek bere trenbide eta metro zerbitzuen neguko ordutegia jarri du martxan: "Ordutegiak eta maiztasunak batez ere hezkuntzako lan-arrazoiengatik dauden joan-etorrien beharretara egokitzeta da helburua".

Bestalde, Euskal Trenbide Sarea enpresak Meagasko tunela konpontzeko zuzentzen dituen obren ondorioz, Bilbo-Donostia linearen trenbide-zerbitzua etenda dago Zumaia eta Zarautz tartean. Hori dela eta, ETSk autobus-aldaketa zerbitzua ematen du: Donostiara-ko joan-etorrietan, autobuserako garraio aldaketa Zumaian egiten da, eta bidaiak errepidez jarraituko du azken helmugara arte; eta, kontrako noranzkoan, Bilborantz, aldaketa Zarautzen egiten da.



## Bigarren eskuko bizikleten azoka bihar

Udalak, Ingurumen Sailaren bitartez, Mugikortasunaren Europako Astearekin bat egingo du aurten ere, irailean zehar egingo diren hainbat jarduerekin. Bihar hasiko da Mugikortasunaren Astearen egitaraua, bizikleten eta mugikortasun jasangarriarekin lotutako objektuen bigarren eskuko azokarekin. Untzaga plazan izango da, 10:00etatik 14:00etara. Azokan parte hartzeko eta bizikletak edota bestelako objektuak lagatzeko hitzordua eskatzeko, ezinbestekoa da aurretiaz izena ematea [www.merkabi.eus/eibar](http://www.merkabi.eus/eibar) estekaren bidez, edo

943 67 02 49 telefonoaren bidez. Parte-hartzea doakoa da.

Azokarekin batera, bizikletak konpontzeko tailerra ere egongo da martxan, Eibarko Klub Deportiboaren eskutik, bizikleten oinarriko konponketak egiteko. Eta arratsaldean, Klub Deportiboak bide-heziketarako zirkuitu bat eta ginkana antolatuko ditu haurrentzat (5-12 urte bitartekoentzat), Untzagan (euria egiten badu, Astelena pilotalekuan izango da). Parte hartu ahal izateko, ezinbestekoa izango da bizikleta edota patinetea eramatea.

**NOLA** SORTZEN DITUGUN HONDAKINAK MURRIZTEN?  
LAGARRI BEZAKOEN MURRIZTEN?

KONPURTZ, BERRABERTZ, BIKIZIATZE ETA BERRASMATZE

### "BERRERABILI ETA BERRASMATU" TAILERRAK

Isena emateko epea: irailak 15 - irailak 25

- Adinez nagusiak: Geltokiaz 5 taller pertsonako.
- Pagara edo bitop://formularioak.sibar.eus/berrerabiltaberasmatu2023-02

Osoartean zerrenda argitaratzeko epea: urriak 2

Osoartek matrikula formalizatzeako epea: urriak 3 - urriak 10

- Matrikula-irrimakila udalaren webgunean eskuragarri
- Matrikula Pagarako postontzian suti (egunero, 7:30 - 21:30)

+ KATALOGOA

	Eibarako emakolak	Eibarako gizonak
• ETXIKO OINARRIZKO KONPONKETAK: ARDITZEDA: urt. 17, 24 eta 31; aza. 7, 14 eta 21 / 17:30 - 19:30	13 €	21 €
• BIKAZI ZURE BIZIKLETA KONPONTZEN: urriak 16 / 18:00 - 20:00	2 €	4 €
• ETXIKO OINARRIZKO KONPONKETAK: ESTALDURAK ETA PINTURA: urt. 19 eta 26; aza. 2, 9, 16 eta 23 / 17:30 - 19:30	13 €	21 €
• SORTU ZURE OHSARTERAKOAK ETA BESTELAKOAK ERAMATEKO ZORRIDA: urriak 21 / 11:00 - 12:30	6 €	10 €
• TAPIZATU ETA ESTIZENATU ZAHARRETIK BERTORA: urriak 28 / 10:30 - 13:30	7 €	11 €
• BIKIZIATU ERABILTZEN EZ DUTZUN AKOPA: azaroak 4 / 8 banda: 16:00 - 18:00 eta 18:00 - 20:00	5 €	8 €
• ERABILI BOTILA BAT ZURE HODEI-LANPARRA SOKTZEKO: azaroak 8 / 18:30 - 20:00	6 €	10 €
• SORTU TAPIZAK ERABILTZEN EZ DITUZUN JAINTZEKIN: azaroak 11 / 11:00 - 13:00	4 €	7 €
• PAPERARIZKIN JOLASIAK: ABALDORAK ETA OSAGAIORAK: azaroak 18 / 11:00 - 13:00	5 €	8 €
• APROBETXAMENDUZKO SUKALDARITZA: ERREZETA BERRAK: azaroak 22 / 18:00 - 20:00	4 €	7 €
• BIZIENERTU ZURE ALTZARI ETA DEKORAZIO OBJEKTOAK: azaroak 25 eta abenduak 2 / 10:30 - 13:30	10 €	25 €
• APROBETXAMENDUZKO SUKALDARITZA: POSTITZAK ETA ATSKARAK: abenduak 12 / 18:00 - 20:00	4 €	7 €
• BERRASMATU ETXERAKO APANGAIORAK BERRAZ BIZITZA BERRA EMANEZ: abenduak 14 / 18:00 - 20:00	4 €	7 €



## Garagardo Ferixa aurten Errebalen izango da domekara arte

Trikitilariak alaituta Untzagatik Errebalera bitartean egin zuten kalejira eta gero, eguaztenean zabaldu zuten Eibar Rugby Taldekoen XVIII. Garagardo Ferixa. Aurten estreinekoz Errebalen dagoen azokaren irekiera-ekitaldian Eibarko emakume kirolariak omendu zituzten eta beraiek zabaldu zuten lehen garagardo kupela, topa egiteko.

Domekara arte martxan egongo den Ferixan garagardo aukera zabala eskainiko dute: “Aurreko urteetan bezala, nazioarteko gara-

gardoak egongo dira, besteak beste Salvator, Affligem Double, Garizko Paulaner, Paulaner Originala eta Guinness Ho House berritasun gisa. Hauetaz gain, IPA estiloko garagardoa topatuko duzue ere, Lagunitas IPA. Gainera, glutena toleratzen ez duenak ere tokia edukiko du Garagardo Ferixan”.

Garagardo ezberdinez gain, janaria ere badago aukeran eta bihar taloak ere salduko dituzte. Gainera, zuzeneko musika ere egongo da egunero.

## Aste honetako euriteen irudiak bideo batean bildu eta ikusgai ipini ditugu

Astelehenean eguraldiari buruzko iragarpenak bete ziren eta prezipitazioak eta ekaitzak protagonista izan ziren arratsaldean. Euria gogotik egin zuen Bizkaian eta Gipuzkoan, eta txingorra bota zuen hainbat lekutan, baita Eibarren eta Ermuan ere. Herriko kaleek urez gainezka egin zuten auzo askotan.

Eibarren, Legarre auzoan sortu zen arazorik handiena, eta Unbe-ko instalazioak itxi egin zituzten, badaezpada. Eta Udaltzaingotik azaldu digutenez, herritarren dei ugari jaso zituzten. Eibarko eta Ermuko hainbat irudirekin bideoa egin eta gure YouTube kanalera igo dugu.

## Landare inbaditzaileak identifikatzen ikasteko irteera antolatu du Eibarko Baso Biziak elkarteak domeka goizerako

Eibarko Baso Biziak natur elkar-teak, kirol talde eta Udalaren laguntzarekin, domeka honetarako irteera antolatu du: “09:30ean Urkizuko iturriaren ondoan elkartuko gara eta, jarraian, Debanaturaren kidea eta espezie inbaditzaileetan aditua den Diego Mendozak Eibarren dauden landare inbaditzaileei buruzko azalpenak (identifikazioa, kokapena, sortzen duten inpaktua, nola eta nola ez kendu, nola kudeatu...) emango dizkigu”. 10:00etatik 13:00era Txontara joango dira, landare inbaditzaileak identifikatu eta kentzeko. Amaieran, nahi dutenak Errebalera joango dira, hango Garagardo Azokan bazkaltzeko.



## Domekan hasiko dira mezak ospatzen Azitainen

Domekan, 10:30ean hasita eskainiko den mezarekin, ekingo diote ikasturte berriari Azitaingo Jaso-kunde parrokiari. Bertan eskaintzen diren zerbitzu erlijioso eta mezen arduradunek diotenez, “domeka eta jaiegunetan emango diren meza guztiak 10:30ean hasiko dira”.





## Euskara ikasi nahi dutenentzat eskaintza zabala dago euskaltegietan

Euskara ikasi nahi dutenentzat matrikula zabalik dago Eibarko euskaltegietan. Eibarko AEK'n irailaren 29ra arte egin daiteke matrikula. Maila guztietako ikastaroak emango dituzte, hasiera mailatik (atzerritarrentzako ikastaroak) goimailara arte (C2). Ordutegia ere zabala da (goiz, eguerdi eta arratsalde). Eta klasera joan ezin direnentzat, ikastaro erdi-presenzialak eta on-line ikastaroak ere badituzte.

### Ikastaro bereziak gazteentzat

Aurten, gainera, 16-18 urtekoentzako ikastaro berezia eskainiko dute, “gazteen komunikazio gaitasuna hobetzeko xedez. C1 mailako urte osoko ikastaroa 20 euro besterik ez dute ordaindu beharko”. Gainera, Udalaren eta HABEren laguntzei esker, tarifa bereziak daude gainerako ikastaroetan. Informazio

gehiagorako edo izena emateko, AEKren lokalera joan daiteke, 943 20 13 79 telefonora deitu edo eibar@ae.k.eus helbidera idatzi.

Eta Udal Euskaltegian irailaren 28ra arte egin daiteke matrikula. Honetan ere maila guztiak eskaintzen dituzte, A1etik hasi eta C2ra arte: “Eskolak goizez edo arratsalde izaten dira, eta txandaka aritzeko aukera dago. Autoikaskuntza sistema ere badugu, tutoretza eta mintzasaioen bitartez osatzen duguna”. Tarifa bereziak dituzte (%50eko deskontua) langabeentzat, ikasleentzat, dendari eta merkatarientzat, 65 urtetik gorakoentzat eta gurasoentzat, eta 16-18 urtekoentzat ikastaro bereziak ere emango dituzte. Informazio gehiago nahi izanez gero, euskaltegira joan (Bista Eder, 10, 2. solairua), idatzi (euskaltegia@eibar.eus) edo deitu (943700912) daiteke.



## 100 Oparitu Eibar txartel zozketatuko dituzte Dendari Elkarteok

“Oporretako Itzulerak Saria Du!” izeneko promozioa abiatu du Eibarko Dendarien Elkarteak. Irailaren 24ra bitartean, elkarteok saltokietan zerbait erosten dutenen artean, 30 euroko balioa duten 100 “Oparitu Eibar” txartel oparituko dituzte, zozketa bidez. Parte hartzeko bi modu daude: 60 txartel Dendarien Elkarteoko Txartelaren bidez zozketatuko dira, Rural Kultura datafonoaren bitartez; eta beste 40 txartelak erosketa-tiketa saltoki bakoitzean dagoen kutxan sartzen dituzten artean zozketatuko dira. Zozketa irailaren 28an egingo da.



## Domekan itxiko dira kanpoko igerilekuak

Udalak jakinarazi duenez, kanpoko igerilekuak aurreikusita zegoena baino astebete gehiago, domekara arte egongo dira zabalik, orain arteko ordutegian: goizeko 10:15etik 20:00etara bitartean.



IÑAKI ELORTZA

## Kardioa edo indarra?

Iritsi da iraila, eta berarekin batera, ikasturte berri baten hasiera. Urtero bezala helburu berrietan pentsatzeko momentu ezin hobea, hizkuntza bat ikasi, diru gehiago aurreztu, kirol gehiago egin, udan zehar hartutako kiloak kendu....

Gaurkoan azken bi puntu horiei buruz hitz egingo dugu, zehazki koipea galdu nahi dugunean zientziak gomendatzen digun kirol motari buruz. Zer da hobea helburu hori lortzeko? Kardioa edo indarra?

Lehenik definitu ditzagun bi kirol mota horiek. Alde batetik, kardioa daukagu, aerobikoa edo erresistentzia kirola esaten zaiona: ibiltzea, korrika, igeriketa, bizikleta... Bihotz taupaden eta arnasketaren frekuentzia azkartzen dute, gorputzeko muskulu handiak erritmikoki mugiarazten dituzte eta intentsitatearen arabera iraupen luzeak izan daitezke. Kirol mota hori maiztasunez egitea, diabetesa, bihotzeko gaixotasunak edota dementzia izateko arrisku gutxiagorekin erlazionatzen da.

Bestetik, indar kirola edo anaerobikoa dugu. Horren adibide, pesa altxaketa, halterofilia, gorputzaren pisuarekin egindako ariketak (flexioak, sentadillak, fondoak...) edo kalistenia izan daitezke. Kirol horietan ariketak motzagoak izaten dira, baina intentsitate handikoak, giharra mugara eramaten dute, baina, aldiz, bihotz taupadak edo arnasketa ez dira asko azkartzen. Honen onuren artean aipa ditzakegu osteoporosia, frakturak, sarkopenia (giharraren galtze progresiboa) dependentzia ekiditen dituela eta zahartzaroan pertsona autonomoak izaten laguntzen duela. Horrez gainera, gure metabolismoa, hau da, erretzen ditugun kaloriak edo energia igo egiten ditu.

Argi dago, beraz, bi kirol mota horiek osasunarentzat onuragarriak direla eta ideala biak jorratzea izango dela. Baina, gure asmoa koipea galtzea baldin bada, zein da hobea? Zer dio zientziak honen inguruan?

Ba zientziak argi dauka, azken urteotako ikerketen arabera, indarra lantzea hobea dela koipea galtzen joateko. Horren arrazoia aurrerago aipatu dugun metabolismoan duen eragina da. Egia da kardioa egiten dugun bitartean indarra egitean baino kaloria gehiago erretzen dugula, baina indarra lantzeak egun osoan zehar du eragina metabolismoan. Hala, indarra landuz gero, lo gaudenean ere kaloria gehiago erreko ditugu, eta horrek asko lagunduko digu koipea galtzen. Gainera, horrek yo-yo edo errebote efektua ekiditen laguntzen du.

Beraz... DENAK INDAR EGITERA!!!!

**“Azken urtetako ikerketen arabera indarra lantzea hobea da koipea galtzen joateko”**

# 50 urteko irribarrea ahoan

GASTESI HORTZ KLINIKAn ospakizunetan daude, 50 urte bete baitituzte. Egia esan, klinikako atea irekitzea gozamina da beti, maila goreneko tratamenduak jasotzeaz gain, bikain hartzen zaituztelako bertan. Urte askotarako!



GASTESI hortz klinikako gaur egungo lan taldea.

**R**uñean jaio, Zangozan hazi eta Felix Gastesi hortz-protésigilearen semea, Jesus Mari Gastesik medikuntza egin zuen gero estomatologia ikasteko. Hortzen osasunaz arduratu nahi zuen eta, bidelagun eibartarra aurkitu ondoren, hemen egin zuen ibilbide profesionala.

Bidebarrieta kaleko 10. zenbakian zabaldu zuen klinika eta han jardun zuen orain dela 11 urtera arte. Erretiratzean, Ane alabak hartu zuen lekuko eta Errebal kaleko 9. zenbakian (1. pisuan) daude orain dela zazpi urtetik hona. “Klinikan familia giroa bizi izan dugu beti. Izan ere, aitarekin batera arrebak gaztea etorri zen lanera, Asun. Eta eurekin Carmen Ormaechea eibartarra aritu zen bizitza osoan zehar”, azaldu digu Anek.

Jesus Marik hortz kontserbazioaren aldeko apustua egin zuen arazo txikiaren aurrean hortzak kentzea ohikoa zen sasoiaren. Sasoi horretarako punta-puntako tratamenduak egiten zituen eta gaur egun filosofia berari eusten diote GASTESIIn,

lehen aipatutako giro atseginari eutsiz. Horretarako, berebizikoa da lan-talde egokia edukitzea eta GASTESIIn asko zaintzen dute hori. “Langileon artean demaseko harreman ona dugu eta asko igartzen da bezeroekin dugun tratuan”, esan digute Ane berak eta lan taldea osatzen duten Lorea Garaizabalek, Lorena Paramiok, Eider Izquierdok eta Garbiñe Olidenek.

**Gertuko tratua eta punta-puntako tratamenduak dira GASTESI hortz klinikako ikurrak**

## GASTESI

Hain zuzen ere, bezeroek esperientzia gozoa izateko ahalegin bereziak egiten dituzte GASTESIIn. Horregatik, oso gertukoak izateaz eta tratamendu atseginenak emateaz gain, bezeroei ahalik eta une atsegingarriena pasarazteko baliabideak dituzte eskura: telebista, marrazkiak, eta abar.

### Ospakizun berezia

50 urte egunero betetzen ez direnez, ospakizun berezia egingo dute GASTESI hortza klinikakoek irailaren 22an, Errebal Plazan. Bertan, historian zehar klinikarekin zerikusia izan duten lagunak bilduko dira eta Jesus Mari Gastesik merezitako omenaldia jasoko du. Eta ez hori bakarrik, sorpresak ere egongo direla aurreratu digute eta!



Eibarko baserritarrek,  
lanabesekin (1921). INDALECIO  
OJANGUREN

Kofradiako kideek elkarri laguntzen zioten (bideak garbitzen, uztak jasotzen...). Kofradia bakoitzak santu baten izendapena izaten zuen, beti ermitari lotuta egoten zirelako. Kofradia hitzaren etimologia "anaiekin" esanahiarekin lotuta dago. Garai batean auzolan asko zegoen.

## Kofradiak eta auzoa; auzolana

Jabier Elortza Maiztegi  
(1958)



Jabier Elortza Maiztegi Soraluzen jaio zen 1958an. Historia ikasketak egin zituen eta dokumentatzailea da. Soraluzeko Udalean administraria izan da, baina dokumentazio eta paleografiako ikerketak ez ditu baztertu bizitza osoan. Hainbat liburu argitaratu ditu, horietatik ezagunetariakoak "Eibar: Orígenes y Evolución" eta "La Villamayor de Marquina, llamada Elgoibar". "Eibarko ermitak" proiekturako egin zitzaion elkarriketa, aditu bezala.

Jabier Elortzari grabatutako  
pasarteetako baten transkripzioa

[Hemen Akondiako kofradia zeguan, ezta?] Soraen, Akondia, eta Arejita, Arizmendi da, bai. Kofradixak. [Relijiñotik aparte, bazeken beste funziñorik? (...)]. Bai, euren artian laguntzia, gauzeekin. Danak. Gauza guztietan. Bai uzta batzeko, bai bidiak garbitzeko... ta hori. Eta, gero, ermittan zeukan kofradia bakoitzak *santu* bat bezela (...). Santakruz, edo beste bat San Martin... igual da. [Ez daka zerikusirik adbokaziñuakin? Edo bai?] Bai, bazeukan, zelan eta lotuta zeguan beti ermita batekin. Honbre, kofradixakua, esaten dan *tierra llanan*, lurraldean bizi dana. Oin ya Eibarren danian dago, herrixan: la cofradía del bacalao, la de la sardina, el pescado y la de la castaña. Baiña lehen ez, ziran hórretxek. Ta ziran... kofradia anaidi bat da. Hori da, latinez *cum frater*. Con hermanos. Hori da.

# Marokoko lurrikararen lekuko

Barixaku gauean, 23:00k inguruan, Richter eskalako 6,9 graduko lurrikara izan zen Marokon. Bere historiako handiena. Horri, gainera, ondoren etorri ziren (eta etorri daitezkeen) erreplikak gehitu behar zaizkio. Gaur egun ditugun datuen arabera, 2.600 lagunetik gora hil dira horren ondorioz eta gutxienez 2.500 zauritu daude.

**L**urrikararen epizentroa Ighilen kokatu dute, Marrakexetik 60 kilometrora dagoen herrian. Eta hain zuzen ere, Marrakexen zegoen une hartan Leire Barriuso eibartarra, Geoparkeko gerentea, UNESCOk antolatutako Geoparkeen Nazioarteko Batzarrean. Zorionez, salbu dago eta gertakizuna kontatu ahal izan digu Marokotik bueltan, baina inoiz ahaztuko ez duen esperientzia izan zen, zalantzarik gabe. “Han geratu eta bizi direnek dute egoera latza”, esan digu telefonoaren beste aldetik.

Geoparkeen Nazioarteko Batzarra bi urterik behin egiten da eta Euskal Kostaldeko Geoparkekoak gonbidatu zituzten Marrakexeko ekitaldira joateko, baita hitzaldia ematera ere. “Batzarrak lau egun inguru irauten ditu eta guk Euskal Kostaldeko Geoparkea aurkezteko hitzaldia eman behar genuen. 1.500 lagun inguru geun-



den batzarrean eta %70 geologoak izango ziren gainera”, azaldu digu Barriusok.

## Dardarak Arrate Egunean

Euskal Kostaldeko Geoparkekoek aurkezpena egin zuten eta barixaku gauean, “Arrate Egunean hain zuzen ere”, Barriusok gogoratu digun bezala, afalostean, hotelera bidean jarri ziren euskal ordezkariak. “Marrakexeko Medinan geunden, alde zaharrean, riad deitzen zaien horrietako batean. Hau da, patioa duten etxe horietako batean”, zehaztu digu.

Bat-batean, hoteleko atarian hoteleko langile batekin fakturen inguruan berba egiten ari ziren bitartean, lurra dardarka hasi zen. “Astindu moduko bat sentitu genuen, gure azpitik metroa pasatu izan balitz bezala, agian pixka bat fuerteago. Bata besteari begira jarri ginen, harrituta, eta bat-batean demaseko mugimendua hasi zen.



Marrakexeko hainbat eraikin birrindu zituen lurrikarak. LEIRE BARRIUSO

Ordenagailua lurrera erori zen, dena mugitzen hasi zen, baita lurra ere. Jendea garrasika hasi zen. Orduan, ate azpian jarri ginen. Hurbil geneukan eta atetik kalera metro batzuk zeuden, lau metro inguruko tunel moduko bat zelako. Dendena nola erortzen zen entzuten genuen eta hautsa zegoen nonahi. Ezin zen ezer ikusi. Gaua zen, baina zorionez argia ez zen joan. Hautsak itsutzen zuen guztia”, kontatu digu Barriusok.

Dardara inoiz amaituko ez zela iruditu zitzaion eibartarrari. “30 segundu iraun zuela esan didate, baina niretzat hiru minutu edo gehiago izan zirela iruditu zitzaidan”, esan digu. Dardara amaitu zenean ez zuten ezer ikusten hautsaren ondorioz. “Arnastea kostatzen zitzaigun eta kamiseta jarri genuen buruan. Baina beno, dardara amaitzen zela ikusi genuenean kalera irten ginen arrapataka. Kale estu-estu batean geunden eta etxe

**>>> Leire Barriuso eibartarrak Marrakexen bertan bizi izan zuen lurrikara, Geoparkeen Nazioarteko Batzarrean hizlaria izan baitzen**

**>>> Dardarak hasi eta berehala ate baten azpian babeslekua aurkitu zuen eibartarrak eta gero gune irekietara joan ziren**

bat jausita ikusi genuen. Hain zuen ere minutu bat lehenago pasa ginen handik. Beraz, pentsa, azpian geratu ahal ginen minutu bat geroago pasatuz gero. Orduan, kale zabalera irten ginen eta mundu guztiak egin zuen berdin. Batzuk gantzontziloetan, beste batzuk biluzik, batzuk garrasika... denetik. Handik plazetara edo biribilgu-

neetara joan zen jendea eta baita gu ere. Hau da, inguruan teilaturik edo ez ezer zegoen guneetara, toki irekietara” jarraitu du kontakizuna.

Biribilgunean, lasaiago, egoeraz jabetuz joan ziren eta jendeak egoerari nola aurre egiten zion ikusi zuten. “Batzuk mantekin ikusi genituen, gaua kalean pasatzeko asmoarekin”, azaldu digu Barri-



Leire Barriuso Marrakexen egin zen Geoparkeen Nazioarteko Batzarrean. GEOPARKEA

## >>> Lurrikarak hondamendia eragin zuen arren, Marrakexen ez zen argia joan eta ezta Interneteko seinalea ere

## >>> Hurrengo egunean Marrakexeko herritarrek harriak baztertu eta bizitzari berriz ekin ziotela esan digu Barriusok

sok. “Gu bueltaka ibili ginen egoera nolakoa zen ikusten eta kongresuko espainiar batzuekin elkartu ginen, inguruan zeudenak. Parke baten jarri ginen eta 03:00k inguruan hotelera joatea erabaki genuen, nola zegoen ikustera. Justu orduan ari zen jendea bertara itzultzen, ordura arte inork ez zuelako itzuli nahi, beldurtuta. Hotela oso ondo

zegoela ikusi genuen, kalterik eta arrakalarik gabe, beraz, nahiz eta beldurra izan, kanpoan ez genuen ezer egiten eta atseden pixka bat hartzea erabaki genuen”, Barriusoren berbetan.

### Marokoarren erresilientzia

Pare bat ordud atsedena hartu ondoren, kalera irten eta harritu egin

zirela esan digu eibartarrak: “Bazirudien ezer gertatu ez zela. Jausitako harriak baztertuta zeuden edo baztertzen zebiltzan, eta dendak zabalik zeuden, dena martxan berriz... Demaseko erresilientzia dute, pasada bat”, zehaztu digu.

Lurrikarak sekulako hondamendia eragin zuen, baina Interneteko seinalea ez zen joan eta, gutxienez, etxekoei ondo zegoela esateko aukera izan zuen Barriusok. Era berean, informazioa lortzeko aukera zuen eta itzulerako hegaldia egun horretan arratsaldean zuen arren (zapatuan), aireportura goizean goiz joatea erabaki zuen, badaezpada. “Han ere normaltasun handia zegoen egia esan. Jendea lotan ikusten zen, baina normalean ere aireportuetan jendea lotan ikusten da. Zorionez, bidaiari ez zuten atzeratu edo ezeztatu, txartelak hartu ahal izan nituen eta etxera itzuli ahal izan nintzen”, diosku Barriusok.

# “Perun egiten den lanaren atzetik dagoen guztia ikustea oso polita izan da”

Nerea Eizagirre eta Maitane Lekunberri • Aldatze ikastetxeko irakasleak



Aldatzen eta Egoaizia elkarteetatik Perura joateko aukera eskaini zieten Aldatze ikastetxeko Nerea Eizagirre eta Maitane Lekunberri irakasle eibartarrei. Ez zuten zalantzarik izan. Mailetak egin eta Perura abiatu ziren uztailean. Bi aste eman dituzte han. Bertako 0-5 urte bitarteko haurren irakasleekin egon dira estimulazio goiztiarra eta generoa gelan lantzeko moduari buruzko esperientziak partekatzen.

BIDEOAK



## Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako irakasleak zarete Aldatze ikastetxean. Nola sortu zitzaizuen esperientzia hori bizitzeko aukera?

Gure eskolan Aldatzen elkarte dago. Duela urte batzuk Perun dabilta lanean Egoaizia eta Aldatzen elkarteak. Aurten Hezkuntzaren inguruko saioak egiteko asmoa zeukaten, zehazki estimulazio goiztiarrari buruzkoak. Gu biok estimulazio goiztiarra lantzen dugu gure egunerokotasunean ikasleekin, eta horregatik iritsi zitzaigun proposamena. Uztailean joan ginen, Egoaiziako bi kiderekin batera. Aurretik, formakuntza berezia jaso genuen, zenbait alderdi indartzeko.

## Peruko zein lekutan egon zarete eta zein izan da zuen zeregina?

Iritsi ginenean Alto Trujilloko eskola bat bisitatzen egon ginen, Fe y Alegria 63 (gure ikastetxeko Kongregazio berekoa da), eta handik Piurara joan ginen astebete. Cuzcon amaitu genuen ibilbidea. Polita izan zen gure bidaia Alto Trujillon hastea. Izan ere, orain dela urte batzuk, gu ere ikasleak ginenean, bertako ikasleekin gutunak elkarbidaltzeko aukera izan genuen. Guretzako oso hukigarria izan da bertan egotea.

Probidentzia eguneko dirua beti doa Perura eta orain bertara joatea eta atzetik dagoen lan guztia ikustea oso polita izan da. Irakasleekin hainbat saio izan ditugu estimulazio goiztiarra eta hezkidetzaz lantzeko. Bertako eskoletako irakasleekin eta “promotorak” deitutakoekin ere egon gara. Promotora gehienak emakumeak dira; berez ez dira irakasleak, baina etxez etxe joaten dira eskolara joaten ez diren umeei irakasten. Guztiekin esperientziak partekatzen aukera izan dugu. Estimulazio goiztiarraren bitartez, hainbat gaitasun bultzatzen dira, hala nola, pertzepzio trebetasunak, trebetasun motoreak, kognitiboak, linguistikoak eta sozialak. Adibidez, hainbat ariketa fisikoren bitartez oreka, lateralitatea eta esku-trebetasuna bezalako gaitasun eta trebetasunak indartzen dira. Materialak eta guk hemen egiten ditugun ariketak eurekin partekatu genituen. Guk nola egiten dugun azaldu genien eta eurek euren kontakatu ziguten. Eta, egia esan, ez dago alde handirik.

**Estimulazio goiztiarraz aparte, hezkidetzaz izan da jorratu duzun beste gai bat. Ze ondorio ateratu dituzue?**





Maitane Lekunberri eta Nerea Eizagirre eibartarrak Peruko 'Fe y Alegria 63' ikastetxearen aurrean.

Hezkidetzaren kontuan desberdintasun handiak ikusi ditugu. Kultura ezberdina da, eta hori eskolatan ikusten da. Hemen umeen zerrendak abizenen arabera antolatuta daude. Han, aldiz, bi zerrenda zituzten: neskena alde batetik, eta mutilena bestetik. Eskolara sartzeko ere, neskek eta mutilak ilara desberdinetan zeuden. Jolasteko orduan, neskek jolastan zuten bitartean mutilak itxaroten egoten ziren, eta alderantziz. Neskentzako eta mutilentzako jostailuak ere desberdinak ziren, koloreak... Irakasleak konturatzen dira gauzek ez dutela zertan horrela izan. Baina euren ingurua horrelakoa da, horrela ezagutu dute betidanik eta aldaketak egitea kostatu egiten da, belaunaldiak pasatu behar dira. Emakumeen elkarteetan gauza bera gertatzen da. Euren bizipenak entzuten egon ginen. "Ahora mi marido me deja venir aquí" eta horrelako gauzak esaten zituzten. Oso eskuzabalak ziren gauzak kontatzen, eta batzuetan oso esperientzia gogorrek izaten ziren.

#### **Eskolara joatea ume guztien esku dago?**

Eskolara heltzea ez da erraza ume guztientzat, urruti bizi direnentzat bereziki. Trujillon zaila bada, landa

eremuetan zailagoa dela ikusi dugu. Batzuk bi edo hiru ordu egin behar dituzte mendi barranean oinez eskolara iristeko. Isolatze egoera horrek eragin zuzena dauka ikasleen egoera emozionalean. Gainera, pandemiako egoera hau larritu du, eskolak bi urtez itxita egon baitira, eta ikasle hauen adimen emozionala lantzea beharrezkoa dela ikusi da, euren buruarekiko konfidantza indartzeko. Oro har, bideak ondo egonda, ordubete behar zuten eskolara edo lanerako joanetorria egiteko. Mugitzea oso zaila da. Emakumeen elkarteetara joateko ere denbora asko behar zuten.

#### **Eskoletan egin duzuen lanaz gain, beste proiektu batzuk ezagutzeko aukera izan duzue...**

Ondoren, Piuran egon ginen Egoaziak eta Aldatzen elkarteek bultzatzen dituzten proiektuak ezagutzen. Ez genuen espero hainbeste proiektu eta hainbeste gai lantzea. Emakumeen ahalduntzea, umeen desnutrizio eta anemia, ur-hornidura eta ur-tratamenduak, landa eremuko erakundeak indartzea, eta kakao kooperatibak bultzatzen dituzten proiektuak ezagutzeko aukera izan dugu. Egun batean, 3-4 proiektu ezberdin ezagutzen genituen! Baina gehien harritu eta poztu



San Juan de Bigoten (Piura) irakaste eta "promotoreekin" egindako saioaren osteko irudia.

gaituena, azkeneko bi hamarkadetan Eibarko Udalari esker egin diren proiektuak, pobretutako eremuetan egin duen ekarpena eta bertako biztanleei ekarritako onurak ikusi ahal izatea da. Horien artean, Eibarko Udalak AMUCAL emakume elkartearen ahalduntze prozesuan parte hartzen du. Izan ere, oraindik ere, bertako emakumeak kalera irteteko baimena eskatu behar dute. Horrez gain, Yaku zikloiak izan dituen ondorioak nabarmenak izan dira zonaldean. Adibidez, landa eremuetako bideak guztiz isolaturik gelditu dira, urak bide guztiak hartu ditu-eta. Berebizikoa ikusten dugu Eibarko Udalak momentu honetan uraren kanalizazioan egiten diharduen lana. Gainera, proiektu hori burutzeko bertako biztanleei lan egiteko aukera eman diete. Aipatu beharrekoa da ere ekintzaileei emandako aholkularitza, euren ekoizpenak aurrera eramateko. Hauetako batzuk ikusteko aukera izan genuen, esaterako, "Café 5 aromas" kafe ekoizleak, panela ekoizleak edota ehungintzan aritzen diren emakumeak. Pixkanaka bada ere, pausoko ematen ari dira.

### **Eibartarron diruarekin egite diren proiektuak ikusita, beraz, harro sentitzen zarete.**

Eibarko Udalak kooperazioarekiko duen konpromisoaz ohartu gara eta eibartar moduan asko poztu gara. Hemendik, Eibartik, laguntza pila bat ematen da eta pena da eibartarrek ez jakitea zelako gauzak egiten diren. Guretzako sorpresa handia izan da egiten den

## **“Eibarko Udalak kooperazioarekiko duen konpromisoaz ohartu gara eta eibartar moduan asko poztu gara”**

guztia ikustea. Bidaiaren amaieran, Limara joan ginenean, Txokolatearen Kongresura gerturatu ginen, Piuran ezagutu genituen Approcap kakao kooperatibako lagunak han baitzeuden euren standarekin. Oso pozgarria izan zen sari bat eta diploma eman zietela ikustea, pozgarria eurentzako eta baita guretzako ere. **Beraz, oso balorazio positiboa egiten duzue...**

Guztiz gomendatzen dugun esperientzia da. Aukera izan dugu proiektu desberdinak ikusteko, asko ikasi dugu eta jendea oso jatorra izan da. Dena oso ondo antolatuta egon da eta lasaitasun handia transmititu digute. Esperientzia paregabea izan da guretzat, eta munduaren beste aldean dauden arazoak gertutik ikusteko aukera izan dugu. Hala ere, udazkenerako iragarrita dagoen “El Niño” fenomenoak da orain gehien kezkatzen gaituena. Euren uztak arriskuan daude eta ondorio latzak ekarriko ditu eguneroko bizimoduan.

# KITTONBOLIA



## Aupa zuek!

Eguraldia lagun eta eibartarrok berriz ere Arratiak ospatzeko gogotsu, goizeko hamarretan puntu-puntuan zabaldu zituen ateak **KITTONBOLIAK**.

...eta kitto! Euskara Elkartek antolatzen duen ekimen jendetsuenetakoa da tonbola. Diru-iturria da Euskara Elkartearentzat, eta herritar askok eta askok tonbolako opariak besapean edo motxiletan gordeta hartzen dute etxerako bidea Arrate egunean. Baina tonbolak duen gauzarik ederrena han sortzen den giroa da. 18:00ak bueltan tonbola itxi genuen, sari guztiak banatuta!

Beste behin ere MILA ESKER esan behar dizuegu gutzioi, Arrate egunean ere euskarari eman diozuen babesagatik. Dakizueenez, gure herrian euskararen alde lanean jarraitzeko erabiliko da bertatik jasotakoa. Eta eskerrik asko, nola ez, **Kittonbola**ko opari mordo hori osatzen lagundu diguzuen denda, elkarte, taberna, enpresa eta erakunde guztiei.

Mundialak zarete!!!





### ANTOLATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkarte

### LAGUNTZAILEAK

- WAPOS TXAKUR- ILEAPAINDEGIA
- ADARABAR



- AGUIÑASPI TABERNA
- AKARA TABERNA
- ALOHA TABERNA
- ANA HERGUIJUELA ILEAPAINDEGIA
- ARATATTO
- ARREGI DOMINGUEZ ARRANDEGIA
- ARTOLA JATETXEA
- ASKASIBAR KIROLDENDA
- ASPE PILOTA
- ASTELENA GASTROBAR
- ATEUN HARATEGIA
- ATHLETIC CLUB FUNDAZIOA
- AZITAIN GASOLINDEGIA

- AZPIRI JOSTUNDEGIA
- AZPIRI SANEAMENDUAK
- BAGLIETTO DEKORAZIOA
- BAISI TABERNA
- BALI GIMNASIOA
- BENICOPA ELEKTRODOMESTIKOAK
- BIRJIÑAPE BERRIA TABERNA
- BORDA TABERNA
- BULEBÚ JATETXEA
- BURBUJAS Y MAS LURRINDENDA
- CAPI ESTETIKA
- CHIC ESTILISTAS
- CHIDO JATETXEA
- CLOSET
- COMERCIAL ZABALA
- DANDARA JANTZIDENDA
- DENETIK
- DIRDAI BITXITEGIA
- DITARE MERTZERIA
- EGUREN ELEKTRODOMESTIKOAK
- EIBAR MERKATARITZA GUNE IREKIA
- EIBAR ESKUBALOAIA
- EIBAR RUGBY TALDEA
- EIBAR SASOIAN ONGIZATE ZENTROA
- EIBARBUS AUTOBUSAK
- EIBARKO TXIRRINDULARI ELKARTEA
- EIBARKO UDALA KULTURA



- EL CANTON DE LA AVENIDA



- EL VESTIDOR JANTZIDENDA
- ELITE OFICINAS
- EMANKOR TALDEA ERAIKUNTZAK



- EROSKI EIBAR HIPERMERKATUA
- FOTOPRIX- IKATZ



- GERRITEK INFORMATIKA
- GOIKO LUZ
- GRATZINA JANTZIDENDA
- GUBY JANTZIDENDA

- GURE ESKU DAGO



- GURIDI TABERNA
- HARTARA ARTISAU OSAGARRIAK



- HELMET HOUSE
- IBARKURUTZE FRUTADENDA
- IBONE ESTETIKA



- IDOIA BERGARETXE ESTETIKA
- IKUSI EIBAR JANTZIDENDA
- INDUSTRIAS M A I L
- INDUSTRIAS ROSI
- INGURU ABENTURA
- IPAR SURF SKATE ESKOLA
- IREI ESTETIKA
- IRRITSA JANTZIDENDA



- ITXESI BELARDENDA
- IXUA HOTELA
- IZADI LORADENDA
- IZANE DEKORAZIOA
- IZASKUN HARATEGIA
- JAUREGI ETXERAKO TRESNERIA
- JAZ ZUBIAURRE
- JERONIMO JOSTAILUDENDA
- JORGE VEGA S.L. IGETLSERITZA
- K2 BITXIAK ETA ESKULANAK
- KANTOI GASOLINDEGIA
- KENKO OSASUN ETA ONGIZATEA



- KERALA ESTETIKA
- KHOL ILEAPAINDEGIA
- KIA NAIA CAR
- KLAUS DEKORAZIOA
- KOKEIN TALDEA
- KONTENT TABERNA
- KOPINA JANTZIDENDA
- KRESALA ARRAINDEGIA
- KULTU TABERNA
- LABORAL KUTXA
- LAHIDALGA ZAPATADENDA
- LAKETT ESTETIKA
- LEDER POLTZO ETA OSAGARRIAK
- LOLA 'S JANTZIDENDA
- LUSAI JATETXEA
- MARSÍ LOREDENDA
- MOAPICS
- MUGIKA HARATEGIA
- MUMA JANTZIDENDA
- NEURE DEKORAZIOA
- NO COMMENT JANTZIDENDA
- OBERENA HARATEGIA

- OTEGI HARATEGIA URKIZU
- OTEGI HARATEGIA SOSTOATAREN
- PISSA ZAPATADENDA
- PUBLIRESA PUBLIZITATEA



- PIRRITX ETA PORROTX
- S.D. EIBAR FUNDAZIOA
- SAN ANDRES GOZOTEGIA
- SOSOLA BASERRIA
- SU TA GAR TALDEA
- SUBEROA TABERNA
- TACTO ESTETIKA
- TIRO PITXON JATETXEA
- TWINS JANTZIDENDA
- TXUKUNA MERTZERIA
- TXUTXUFLETAS GOZOKIAK
- UMEA JANTZIDENDA
- URDANIBIA JANTZIDENDA
- URKOTRONIK
- XARE JANTZIDENDA
- YRAOLAGOITIA LIBURUDENDA
- ZAIZOI TABERNA
- ZELAI- BIDE TABERNA
- ZORIONAK LUDOTEKA
- ZUBI GAIN BERRIA TABERNA

**ESKERRIK ASKO  
LAGUNTZAILE ETA  
PARTE-  
HARTZAILE  
GUZTIEI!!!**

# Astebu luzea izan dugu Arrateko jaiak ospatzeko

Eguraldia lagun, ederto ospatu ditugu eibartarrok Arrateko Amaren omenezko jaiak. Aurten egunean egokitu da Arrate bezpera eta, horrela, asteburu luzea eta bete-betea izan dugu jaiak ospatzeko: eguen arratsaldean hasi ziren urteroko ospakizunak eta domekan, Baserritar jubilatuen eta Kofradiaren egunean esan genien agur ekitaldiei.

Arrateko jaietako argazki  
gehiago  
elkartearen webgunean:



Arrateko jaietako  
bideoak gure YouTube  
kanalean ikusgai:











# “Jendeak uste du tiroan punteria dela garrantzitsuena, baina oso psikologikoa da”

JOSE MANUEL DIAZ AJA • Tiratzailea



Jose Manuel Diaz Aja eibartarra Fan 32 (helizea) modalitateko Europako Txapelkun bilakatu zen joan den uztailaren 29an, Chesten (Valentzia). Orain arte Arrateko Tiro klubeko bazkideak lortu duen garaipenik handiena da eta herriko tiratzaileen maila nolakoa den erakusten du. Orain, Munduko Txapelketa du helburu, baina denbora pixka bat itxaron beharko du horretarako.

**B**izitza guztia ehizan pasa ondoren, Jose Manuel Diaz Ajak lehiaketan bidea hartu zuen orain dela urte batzuk bizkarrean zituen minen ondorioz. Ehiza beste kontu bat da beretzat, berezia, baina txapelketetan emaitza bikainak lortu ditu urte hauetan eta aldaketak ondo egin diola esan daiteke. Europako txapelkunak edozein egoerataraz egokitzeko ahalmena duela erakusten du eta, orain, zergatik ez Munduko Txapelketa-rekin amestu?

**Orain galdetuko dizut Europako txapelketari buruz, baina Valentzian izan zara berriki Uso-Tiroko Espainiako Txapelketan. Zer moduz aritu zinen?**

Esperientzia ona izan zen, baina ez nintzen irabazteko asmoarekin joan, arma berria probatzera baizik. Orduan, eguenean eta barixakuan ondo jaurti nuen arma berriarekin, baina zapatuan arma zaharrera itzuli nintzen, Europako Txapelketa eman zidan arrazoi, eta okerrago ibili nintzen. Bitxia da.

**Hain azkar galtzen da trebetasuna ala?**

Ez, baina modalitate ezberdinak dira eta igartzen da. Bata, Europako Txapelketakoa, helizea zen eta plastikoko bati jaurtitzen diozu, eta bestea uso-tiroa zen.

**Modalitate batetik bestera asko aldatzen dira armen ezaugarriak?**

Usoei tiro egiteko arma arinagoak behar dira. Helizea oso azkar irteten da kutxatik eta abiadura galtzen doa. Usoa, berriz, motelago irteten da eta azeleratuz doa. Orduan, tiratzeko modua aldatu egiten da. Aurten helizean ibili naiz buru-belarri eta horregatik sentitu nuen aldaketa.

**Helizean bai, bikain aritu zara Europako Txapelketa lortzeraino. Nola bizi izan zenuen?**

Nahiko txapelketa gogorra izan zen. Valentzian jokatzea inoiz ez da erraza. Haizea egin ohi du eta horrek helizeak tokiz mugitzen ditu. Normalean, eguerditik aurrera haize gehiago egiten du. Ondo ezagutzen dut gune hori, helizearekin bi urte daramatzadan arren, lehen plater-tiroa egiten nuelako.

**Bi urte besterik ez helizearekin?!**

Bai, eta denbora honetan Taldekako Espainiako Txapelketa eta bakarkako Europako Txapelketa irabazi ditut. Orain, datorren urteko Munduko Txapelketa dut zerumugan. Izan ere, aurtengoa Brasilen jokatuko da, Curitiban, eta ezin izango naiz joan.

**Itzuli gaitezen Europako Txapelketara. Nolakoa izan zen?**



## Jose Manuel Diaz

Lehiaketan munduan urte asko eraman ez arren, hainbat sari lortu ditu tiratzaile eibartarrak.

Zaila, baina helburu guztiak lortu zituen lehiakide bakarra izan nintzen.

**Nola helburu guztiak? Zer egin behar izan zenuen?**

Guztira 20 helize jaurtitzen dituzte eta ni izan nintzen guztiak bota zituen tiratzaile bakarra. Batzuk 19ra iritsi ziren. Nire azken tiraldiaren faltan nik zer egingo nuen zain zeuden, ea huts egiten nuen eta txapelketa irabazteko aukera zuten, baina...

**Presio handia sentitu zenuen?**

Azkeneko helizean ez nuen presio handirik sentitu, egia esan, baina aurreko seiretan bai. Ez nituen jendearen komentarioak entzun nahi, emaitzak jakin nahi izanez gero markagailuan begiratuko nuela esaten nuen. Orduan, lagunari esan nion jendeari hurbiltzen ez lagatzeko, lasai egon nahi nuela.

**Joko psikologikoa dago lehiakideen artean?**

Jendeak uste du tiroan punteria dela garrantzitsua, baina oso psikologikoa da. Kontzentratuta bazaude, ondo egin dezakezu, baina bestela akabo. Buruan dituzun arazoei bueltak ematen badizkiozu, ez duzu zereginik. Beste batzuetan, ordea, puntua hartzen diozu, ondo kontzentratzen zara eta dena irteten

**“%40ko baliaezintasuna dut, bizkarra josita dudalako eta, mugikortasun handirik ez dudanez, gorputza asko gurutzatu behar dut kutxa guztiak ikusteko”**

zaizu, baina ez da erraza. Europako Txapelketan oso ondo sentitzen nintzen, baina Valentziako zelaia oso zaila da eta neure burua ‘entxufatuta’ ikusten nuenez, ez nuen kontzentrazioa galdu nahi. Orduan, azken tiroaren aurretik ez negoen batere urduri.

**Nola gogoratzen duzu azken tiro hori?**

Tiraketa bakoitzean bost kutxa egoten dira eta helizea edozein kutxatetik irten daiteke edozein norabidetan. Txapelketa amaitu ondoren, Unai lagunak galdetu zidan ea zein kutxatetik irten zen azken helizea, baina hain kontzentratuta egon nintzen, gero

ez nuela gogoratzen. Oso adi egon behar duzu, gauza asko izan behar direlako kontuan. Gainera, %40ko baliaezintasuna dut, bizkarra josita dudalako, eta mugikortasun handirik ez dudanez, gorputza asko gurutatu behar dut bosgarren kutxa ikusi ahal izateko, baina era berean, hori egitean lehen kutxa ikusteko arazoak ditut. Tira, oso kontzentratuta egon behar naiz, azken finean.

### **Buruan zenuen Europako Txapelketa lortzea?**

Garaipena lortzeko gertu egon arte ez nuen pentsatu ere egiten. Hori bai, Valentziara autoan gindoazenean aipatu genuen kopa Eibarrera etorri behar zela, gutako norbaitek irabazi behar zuela. Bete ez ziren apustuak ere egon ziren tarteko. Gutako batek bidaiatzeko poltsa berria erosi zuen eta zera esan zuen: “Norbaitek kopa irabazten badu, poltsa emango diot kopa eramateko”. Azkenean ez zidan eman, baina barre egin genuen.

### **Handia egin duzu ba!**

Bai, polita izan da. Europako onenekin lehiatu eta irabazi egin nuen. Iaz, Portugalen izan nintzen Munduko Txapelketan eta azpikeria egin zidaten. Ez nuen araudia ondo ezagutzen eta kontua da helizeari jotzen badiozu eta honek lurra jotzen badu bigarren tiroa eman aurretik, tiroa errepikatu behar duzula (tiro bakarrera). “Tiro bat”, esan zidan portugaldar batek, eta nik “tiro bat lurrera eta bestea gora?”, eta baietz erantzun zidan. Orduan, berriz tiro egin, helizeari jo eta balio ez zuela esan zidan, bi kartutxo erabiltzeagatik bakarra beharrean. Polemika pixka bat egon zen, ordura arte tiro bakarra ere ez nuelako huts egin. Demaseko haserrea hartu nuen.

### **Beraz, eskura izan zenuen Munduko Txapelketa. Non jokatu da datorren urtekoa?**

Ez dute zehaztu, baina Argentinan, Marokon eta Espainian jokatzeko gertatu daiteke. Ziur dakidana da laster Madrilen jokatu den Uso-Tiroko Munduko Txapelketa jokatu dudala.

### **Zein txapelketatan ibiliko zara orain?**

Lehenik, Helizeko Errege Kopan arituko naiz Cantoblancon (Madril). Gero, Uso-Tiroko Errege Kopa jo-



**“Helizeari dagokionez, Eibarko tiratzaileek arrakasta handiak lortu ditugu hain denbora gutxi eraman arren”**

katuko dut Somontesen (Madril). Tiraketarik garrantzitsuena da parte-hartzaileei eta sariei dagokienez.

### **Zein modalitate gustatzen zaizu gehien?**

Biak gustatzen zaizkit. Denek esaten dute helizea zailagoa dela, gogor eman behar zaiolako.

### **Zuretzat garaipen handia izan da, baina baita Eibarko tiro komunitatearentzat ere, ezta?**

Baietz esango nuke. Gainera, kopa Arraten laga dut. Kopa asko daukat etxean, lehen plater-tiroan aritzen nintzelako. Helizeari dagokionez, Eibarko tiratzaileek arrakasta handiak lortu ditugu hain denbora gutxi eraman arren.

## Herriko pilotariak denboraldi berriari ekin diote

Gaur arratsaldean denboraldiko lehenengo pilota jaialdia izango da Astelenan Eibarko Klub Deportiboko pilota batzordearen eskutik. Arratsaldeko 19:00etan hasita, hiru partidu hartuko ditu jaialdiak: hasteko, Gipuzkoako Eskuz Binakako Txapelketako bi neurketa; eta, amaitzeko, Gipuzkoako Paleta Goma Binakako Txapelketakoa. Lehenengoa jubencil mailakoa izango da eta hor Ibarra/Caramanzana Deporrekiko bikoteak Oartzungo Oiarpe 1 taldeko ordezkariari egingo die aurre. Pilo-



tako bigarrenak helduen mailako norgehiagoka hartuko du, eta hor Narvaiza/Agirresarobe Eibarko bikoteak eta Bergarakoak neurtuko dituzte indarrak. Amaitzeko, paletako partiduan Guinea eta Soria eibartarrak irabazten saiatuko dira Idiazabalgo Atxurbide 2-ko ordezkarien aurrean.

Bestalde, Pilota Eskolako gazte-txoenek martitzenean hasi zuten ikasturte berria eta arduradunak pozarren daude, “17 matrikula berri” jaso dutela-eta: “Gehienak aurrebenjamin eta benjamin mailakotakoak badira ere, alebin mailako jendea ere bada tartean”. Ez dago txarto, ez horixe.

## Igeriketa artistikoak hasi du ikasturtea

Eibar Igerixan klubeko igeriketa artistikoa/sinkronizatua taldearen entrenamenduak hasi dituzte dagoeneko. Azken denboraldikoari jarraituz, saio horiek zapatuetan izango dira, goizeko 11:00etan hasita, Orbeako kiroldegian. Klubetik diotenez, modalitate horretan parte hartzeko gogo dutenek edo interesatuta daudenek edozein zalantza galdetu dezakete: “Animatu eta ezagutu gaitzazu; ez zara damutuko”.

## Hilaren 23an hasiko dute Klub Deportiboko mendi batzordekoek irteeren saio berria

Ikasturte berria hasteko, datorren asteko zapatuan Pancorbon hasi, tartean Verdina gaingitu, eta Miravechen amaituko den ibilbidea prestatu dute mendi batzordekoek. 20 kilometroko ibilbide horretan igoera metatua 1.230 metrokoa izango da eta jaitziera 1.025ekoa. Txangoa hasteko Santa Engrazia Gotorlekuraino igoko dute, ondoren 1.038 metroko Castillete mendira heltzeko: “Puntu horretatik Obarenses mendizerraren ikuspegi po-

lita izango dugu, Morete haitzuloak ikusteaz gain”. Zapalduko dituzten gainen artean ez dira faltako 1.230 metroko Pico del Buey (Ekialdeko Verdina), 1.348ko Cimero (Mendebaldeko Verdina) eta 1.319ko Pico del Aguila. Ibilaldia amaitu aurretik aukera izango dute baita “Autrigones”-eko aztarnak ikusteko ere, “bere erreproduzio kokaleku batean”. Aukera polita, beraz, natura, historia eta kirola batzeko txango batean.

# ek!

Zure publizitatea  
herriko aldizkarian

**688 621 535**  
publizitatea@etakitto.eus

**EPA EIBAR HHI**

**GELA DIGITALA: Oinarrizko Informatika eta Tresna Digitalen IKASTAROA (1. eta 2. mailak)**

**MATRIKULA** zaitetz: izen-ematea zabalik **IRAILEAN**

**Isasi, 39**  
943 20 88 56  
673 11 81 81

## JAZ-eko boskotea dotore aritu zen sprint distantziako Sestaoko triatloian

Bost izan ziren Sestaoko triatloian parte hartu zuten JAZ Eibar Triatloi Taldearen ordezkariak eta aipatutako ausartek, bakoitza bere mailan, onenen artean sartzea ere lortu zuten. Horrela, gure herriko bi ordezkari 4. eta 8. postuetan sailkatu ziren jubenil mailan, eta beste hirurak 4., 5. eta 11. izan ziren beterranoen 2. mailan. Honakoak izan ziren euren helmugaratzeko postuak eta egindako denborak: Ugaitz Gartzia (4. jubenila) 44. postuan sartu zen, 1:15:39ko denborarekin; Ignacio Marquez (4. beterranoa) 60. helmugaratu zen, 1:18:04ko denboran; bere atzetik sartu zen Roberto Gartzia (5. beterranoa), 61 postuan, 1:18:07ko denboran; Iñigo Gaston (8. jubenila) 102. tokian helmugaratu zen, 1:24:22ko denboran; eta



Jesus Sanchez (11. beterranoa) 154. postuan sailkatu zen, 1:34:30eko denbora eginez. Asteburu honetan Zumaiako sprint distantziako triatloia izango da jokoan.

## Eibar Eskubaloiak Arratera mendi igoerarekin ekingo dio denboraldiari

Azken urteotan egin duen lez, Eibar Eskubaloia klubak Arratera egingo duten mendi igoerarekin abiatuko du denboraldia. Domekan izango da hori, Eibar Eskubaloiko talde, entrenatzaile, bazkide eta zaleen parte-hartzearekin, guztiak elkarrekin ekingo duten ibilbidearekin. Hori bai, adin txikikoak nagusi baten ardurapean joan behar dira. Antolatzaileek diotenez, "11:30ean elkartuko gara Altzubarren frontoian eta 13:00etan talde-argazki erraldoia aterako dugu Arrateko zelaian". Ondoren, indar berritzaileko salda eta txorizoa jateko aukera izango da. Egun handia, beraz, gure herriko eskubaloientzat.

## Lander Odiaga nagusi Arrateko bolatokian

Arrate egunean bertako bolatokian jokaturako tiraldian "adin guztiatako bolariak hartu zuten parte". Denetara 62 bolari izan ziren lehen eta lehenengo hiru postuak parrekotan erabaki ziren, hau da, euren arteko berdinketa apurtzeko tiraldietan. Azkenean, Lander Odiaga markina-xemeindarra izan zen irabazlea, Elorrioko Xabier Solozabal bigarren sailkatu zen eta Leire Egaña

elgoibartarra hirugarren, hirurakere aurretik zortzi txirlorekin berdindu eta gero. Eibarko bolari onena Pablo Davila izan zen, zazpi txirlorekin. Bestalde, bolarien hurrengo topaketa Bizkaiko Txapelketako finalean izango da. Zapatuan Aulestiko Santa Eufemi auzoko bolatokian jokatu den tiraldi hori arratsaldeko 16:30ean hasiko da eta bertan izango dira Asola Berriko Bittor As-



tigarraga eta Sergio Rodriguez; une honetan eurak dira lehen bi postuetan sailkatuta daudenak.



estrolara buelta!

elite

ISASI kalea, 29

BEHAR DUZUN GUZTIA / MARKA ONENAK  
KALITATE ETA ZERBITZU BIKAINENA

EQUIPAMIENTO DE OFICINAS 943-200030 elite@eliteoficinas.es www.eliteoficinas.es

Eskola-materiala, papertegia, motxilak, idazmahaiak, aulkiak...



Arrateko talde-argazkian saridunak, omendua eta agintariak agertzen dira.

## Mikel Mujika eta Arrate Gutierrez garaile Simon Aldazabal herri-igoeran

Domeka goizean jokatuak proban 26 gizona eta emakume bakarra izan ziren Arrateraino heltzeko bost kilometro eta erdia osatu zutenek. Mikel Mujika izan zen garailea, 27 minutu eta 9 segundoko denborarekin, eta Josu Uriartek (29'27") eta Alex Higuera (29'50") osatu zuten podiuma. Emakumezkoen arloko irabazleak, Arrate Gutierrezek, 42 minutu eta 27 segundo behar izan

zuten ibilbidea osatzeko. Urkizutik pasatzen lehenengoak izan ziren Markel eta Arrate Gutierrezek Oberenak emandako txuleta irabazi zuten. Bestelako sarituak honakoak izan ziren: Juan Alday (lehen eibartarra), Aritz Sorzabal (lehen beterranoa), Iñigo Trokaola (45 urtetik gorako lehena), Iñaki Alday (55 urtetik gorako lehena) eta Saturnino Olmo (65 urtetik gorako lehena).

## Futbol-zaletuaren txapelketa abian

Zortzi taldek emango diote hasiera futbol-zaletuaren denboraldi berriari, zapatuan eta domekan jokatuko diren binakako partiduetako jardunaldiekin. Partidu guztiak Unbeko beheko zelaian jokatuko dira eta jardunaldi bietako bakoitzean 09:00etan eta 10:30eko ordutegiari jarraituz. Zapatuan lehenengo Bar Maren eta BOJ taldeek neurtuko dituzte indarrak, eta ondoren Garajes Garcia eta Adahi Eraieder izango dira protagonista. Domekan Xania Taberna eta Malape Taberna taldeak arituko dira nor baino nor, jarraian Baserri eta Limpieza Rueda taldeek gauza bera egiteko. Azken denboralditik hona bost aldaketa eman dira taldeen izenetan: horrela, Bar Txoko Xania Taberna izango da orain, America Sport zenak Bar Maren izena hartuko du, Bali Center Sport zena Baserri bihurtuko da, Feredu Bar EzDok izen luzea BOJ laburrean izango du jarraipena eta, azkenik, Bar Banakak Limpieza Ruedari emango dio paso.

**FUNEUSKADI**  
Single Asisten

**TANATORIO EIBAR**

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951  
[www.funeuskadi.com](http://www.funeuskadi.com)

**Eibar:**  
Otaola, 27

**Eibarko bulegoa:**  
Bidebarrieta, 20

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao  
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

**FUNERARIA MUGICA**  
Funerariak

**TANATORIO FUNERARIO ELGOIBAR**

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951  
[www.funerariamugica.com](http://www.funerariamugica.com)

**Elgoibar:**  
Kaelion, 4/n. SIGMA Industrialdea  
(Olasoko hilerriaren ondoan)

**Ermuako bulegoa:**  
Marqués de Valdespina, 16

Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao  
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

**Maria Angeles Arenaza Garitaonandia**

2023/08/31

Zuen babesa ematera  
hurbildu zareten guztiok  
**ESKERRAK**  
eman nahi dizkizuegu  
**BIHOTZETZ**

- SENARRA ETA SENDIAK -





## Urriaren 12ra arte eska daiteke JSM Beka

Udalak eta UEUk elkarlanean antolatzen duten Juan San Martin bekaren XVI. deialdia aurkeztu dute aste honetan Jon Iraola alkateak, Patxi Lejadi Euskara zinegotziak eta Ane Sarasua UEU-ko idazkari nagusiak. Mendizaletasuna eta natura da aurtengo bekaren ikerketa-esparrua eta interesatuek urriaren 12ra arte egin dezakete eskaera, elektronikoki, [www.eibar.eus](http://www.eibar.eus) webgunean. Gogora ekarri dutenez, proiektua, azterlana eta memoria euskaraz burutu behar dira, eta ikerketa-lanak originala eta argitaratu gabea izan behar du. Bekaren zenbatekoa 9.000 eurokoa da eta lana burutzeko epea 18 hilabetekoa da.

Azaldutakoari jarraituta, “aurkeztutako proiektuen artean epaimahaiak merezimendu lehiaketa bidez puntu gehien lortzen dituen hautatuko du”. Beka esleitzeko honako arlo hauek hartuko dira kontuan: eskatzailearen espediente akademikoa eta curriculum (0-10 puntu); ikerketa proiektuaren interesa, zuzentasuna eta balio zientifikoa, originaltasuna eta bideragarritasuna (0-30 puntu); eta Eibarko Udal Artxiboaren edo/eta UEUk Markeskoan duen fondoen erabilpena dakarren gaia izatea edo/eta Eibarrekin harreman zuzena duena izatea (0-10 puntu).

Orain dela 22 urte kaleratu zen lehen deialdia eta dozena tik gora izan dira beka jaso duten lanak. Bekaren bidez euskarazko ikerketa sustatu nahi da eta, horrekin batera, Juan San Martin ikertzaile eibartarra omendu. Bekaren garrantzia dela eta, natura gustoko duten ikertzaile gazteak beraien proiektuak aurkeztera animatu nahi dituzte antolatzaileek. Bekari esker lantzen diren ikerketa esparruak Juan San Martinek bere bizitzan zehar landutakoak dira: antropologia, linguistika, filologia, toponimia, filosofia, literatura, botanika, artea, historia, kazetaritza, etnologia, mendizaletasuna eta zuzenbidea.



## Eibarren girotuta dagoen pelikula Zinemaldian

Jatorriz Gironakoa den baina Eibarren familia duen Amat Vallmajorren ‘Mision a Marte’ Donostiako Zinemaldian emango dute Zinemira atalean. Zinemira euskal zinemari eskainitako saila da eta, bertan, gutxienez %20 euskal ekoizpena duten eta/edo hizkuntza nagusi bezala euskara eta/edo euskal komunitate gaitzat dituzten film luze guztiak Euskal Zinemaren Irizar Saria lortzeko lehiatuko dira. Pelikulak Txomin eta Gene anaiek Eibartik abiatzen duten bidaia kontatzen du. Bidean Mila arrebarengana joko dute eta hirurak elkartzean aspaldiko gaitzespenak sortuko dira familian. Orduan, Generen osasunak okerrera egiten du eta mamuen eta Jesukristoren laguntzaz anai bien misioa amaitzea erabakitzen dute.



## Hasi da Kezkaren Dantza Eskolarako izen-ematea

Kezka dantza taldetik kudeatzen duten Dantza Eskolan 2023-24an jarduteko izen-ematea zabalik dago, bai nagusientzat zein haurrentzat (2019an jaiotakoetatik aurrera). Izen emateak bideratzeko edo informazio gehiago izateko 605711429 zenbakira deitu edo [kezka@dantzan.com](mailto:kezka@dantzan.com) helbidera idatzi daiteke.





## Kale-antzerkia eskainiko du Hortzmuga taldeak bihar

Bihar arratsaldean, 18:00etan, “Agurea, urpekaria eta itsasoa” izeneko antzezki zuna eskainiko du Hortzmuga taldeak, Untzagan. Izpiñe Sotok zuzendutako lan honetan Aroa Blanco, Iñaki Aguinaga eta Alex Antunez aktoreek egiten dute lan. Saiok ordubeteko iraupena dauka eta euskaraz izango da. Egileen arabera, “ikasketa pertsonalean eta tolerantzian oinarritutako abentura kontatzen da, familia osoarentzat eta umorez josia. Bigarren aukerei, itsasorako hondakin-isurketei eta adingabeek sare sozialetan duten esposizio arriskuari buruzko istorioa da”.



## Etiopiako artisten zirkua ikusi ahalko da Untzagan

“Greed” (zekenkeria) kale-ikuski zuna antolatu du Kultura sailak biharko, 19:30ean Untzagan. Diotenez, “Kiné Circus Etiopia proiektuak zirkoa erabiltzen du giza izaera, artea eraldaketa sozial gisa aztertzeko, benetako nortasun kultural etiopea txertatuz, eta Addis Abeban gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden haur eta gazteei aisialdirako eta garapenerako gune bat emateko helburuarekin sortu zen”.




## XIX. Pintxo Lehiaketarako izen-ematea irailaren 30erako

Arrate Kultur Elkarteak antolatzen duen Eibarko XIX. Pintxo Lehiaketarako izen-ematea zabalik dago. Tabernari bakoitzak pintxo bat aurkeztu dezake. Lehiaketa urriaren 25ean eta 26an izango da eta, lehiaketarako pintxo barran egon beharko da bi egunetan, nahi dutenek jateko moduan (2 euro eta 2’5 euro arteko prezioan). Irailaren 30a baino lehen eman beharko da izena. Datu guztiak (izen-emate orria, tabernaren izena, kontakturako arduraduna/telefonoa, pintxoaren izena, osagaiak/deskribapena, pintxoaren argazkia), argazkia barne, [arratekultu@gmail.com](mailto:arratekultu@gmail.com) helbidera edo 638284912 Whatsapp zenbakira bidali beharko dira. Hainbat sari banatuko dira.

## Ipurua auzoko abesbatza

Auzoko abesbatzan parte partzeko deialdia egin dute Ipurua Merkatu Plazatik. Urriaren 3an elkartuko dira lehenengoz. Zuzendaria Jose Miguel Laskurain izango da eta entseguak martitzenetan egingo dira, 19:00etatik 20:00etara. Adin guztientzako zabalik egingo den jarduera da (8 urtetik beherakoek lagunduta joan beharko dute). Izena emateko ipuruakomerkatuplaza@gmail.com helbidera idatzi daiteke.



## Iraileko argazki erakusketak

Eibarko Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldearen eskutik, irailean bi erakusketa hauek egongo dira ikusgai: Jose Luis Garcia de Madinabeitiaren argazkiak, Depor tabernan, eta Txema Arterterrenak Portalea jatetxean.

**ZERTXOBAIT ERRAZAGOA**

	2				6	7
			6	4		3
7			2	3	8	
	4			7	1	
	1					3
		9	5			2
		5	9	2		1
4			1	5		
3	1					8

1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9

soluzioa

**S  
U  
D  
O  
K  
U**

**ZERTXOBAIT ZAILAGOA**

2	8	6			7		1		
		1					8	2	
						9		3	
	9			8				5	
			9		5				
5				7				3	
3		4							
7	1						4		
	5		2				3	7	1

1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9

soluzioa



**AURKITU 10-NAKO EZBERDINTASUNAK**



# Irailak 15 / 21

## BARIXAKUA 15

### GARAGARDO AZOKA

19:00 Euskalparmila.  
20:00 Saxofoi taldea.  
Errebal.



## ZAPATUA 16

### AZOKA

10:00/14:00 Bigarren eskuko bizikleten azoka. Bizikletak konpontzeko tailerra, Eibariko Klub Deportiboaren eskutik. Untzaga. Arratsaldean, haurrentzako bide-heziketara zirkuitua eta ginkana. Eibarko Klub Deportiboaren eskutik. Untzaga (euria egingo balu, Astelena frontoian).



## JAIAK

13:00 Bien Aparecida Amabirjinaren jaiak. Meza, San Agustin elizan.  
14:15 Piskolabisa, Kantabriako Etxeko bazkide eta lagunentzat. Jardines taberna.



## ANTZERKIA

18:00 "Agurea, urpekaria eta itsasoa", Hortzuga taldearen eskutik. Euskaraz. Untzaga.



## GARAGARDO AZOKA

19:00 Ekotalo.  
20:00 DJ. Errebal.

## ANTZERKIA

19:30 "Greed" (Kine Zirkus, Etiopia). Untzaga.



## DOMEKA 19

### BASO BIZIAK

09:30 Parte-hartzaileak elkartztea. Urkizuko iturria.  
09:30/10:00 Eibarren dauden landare inbaditzaileei buruzko azalpenak, Diego Mendoza biologoaren eskutik.  
10:00/13:00 Ibilbidea, landare inbaditzaileak identifikatu eta kentzeko. Txonta.  
14:00 Herri-bazkaria (nahi dutenek), Errebalgo Garagardo Azokan.



## EIBAR ESKUBALOIA

11:30 Denboraldi hasierako Arratera Igoera. Irteera Altzubarren frontoitik.  
13:00 Talde-argazkia, Arrateko zelaian. Ondoren, salda eta txorizoa.



## GARAGARDO AZOKA

19:00 Txerri ukondoa.  
20:00 Musika. Errebal.

## ERAKUSKETAK

### Irailaren 30era arte:

- **JOSE LUIS GARCIA DE MADINABEITIAren argazkiak.** (Klub Deportiboan).  
- **TXEMA ARTETXEn argazkiak: "Bosque Mágico San Leonardo"** (Portalea taberna).

### Urriaren 1era arte:

- **"TAILERRETIK BULEGORA. EIBARKO PRODUKTUAK".** (Armagintzaren Museoa).

## Eskualdeko Agenda

## DEBA

### LASTURKO JAIAK

15ean (BARIXAKUA)  
21:00 Bertso-afaria. Gero erromeria, Bide Batez-ekin  
16an (ZAPATUA)  
11:00 Pilota eta boloak. Gero herri-bazkaria.  
17:30 Dantza eta jolasak.  
17an (DOMEKA)  
09:30 Meza. Gero Hamai-ketakoa eta pilotako finala.  
14:00 Bazkaria. Gero zezenak, pailazoak eta Nikolas Txikiren iguera.

## ERMUA

15ean (BARIXAKUA)  
**OPERA**  
20:30 / Ermua Antzokia  
"El barbero de Sevilla"  
16an (ZAPATUA)  
**KONTZERTUA**  
19:30 / "Hiru Txikiak"  
"Versionarios"

## ELGOIBAR

16an (ZAPATUA)  
**MUSIKA**  
16:00 / Idotorbe  
Dan-Tz Point X Alternative Division. DJ Masterclass.

# ZINEA COLISEO

## 1 ARETOA

- **16an:** 19:45, 22:30
- **17an:** 20:00
- **18an:** 19:30

**“La guerra de los Lulus”**  
DRAMA



2023/Frantzia /109'  
Zuzendaria: Yann Samuel  
Aktoreak: Isabelle Carré,  
Tom Castaing, Léonard Fauquet  
**Abenturak/Nerabezaroa**

## 2 ARETOA

- **16an:** 19:45, 22:30
- **17an:** 17:00, 20:00
- **18an:** 19:30

**“La manzana de oro”**  
KOMEDIA



2022/Espainia /100'  
Zuzendaria: Jaime Chavarrí  
Aktoreak: Sergi Lopez,  
Marta Nieto, Adrian Lastra  
**Jardunaldiak/Poesia mundua**

## ANTZOKIA

- **16an:** 17:00, 19:45, 22:30
- **17an:** 17:00 (1. Aretoa), 20:00
- **18an:** 19:30

**“Todos los nombres de Dios”**  
DRAMA



2023/Espainia /100'  
Zuzendaria: Daniel Calparsoro  
Aktoreak: Luis Tosar,  
Inma Cuesta, Nourdin Balan  
**Thriller/Terrorismoa**


## ANTZOKIA

- **16an:** 17:00
- **17an:** 17:00

**“Vampiro al rescate”**  
ANIMAZIOA




2022/Errusia /76'  
Zuzendaria: Roman Artemyev  
**Abenturak/Banpiroak/  
Familian ikustekoa**



## Luis Jesus Ramos Aizpurua

**6. URTEURRENA**  
2017/09/14

“Beti zurekin,  
beti gurekin.  
**MAITE ZAITUGU”**



- ETXEKUAK -

## Ramon Hernaltes Treviño

**6. URTEURRENA**  
2017/08/05

Sei urte pasatu  
badira ere,  
gure bihotzetan  
jarraitzen duzu.



- ZURE FAMILIA -

943 20 67 76

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **NAIA**, gure etxeko printzesak 5 urte egin zittuan-eta astelehenian! Askok maite zaittugu!



Zorionak, **ANE!!!** Etxeko txikixak 3 urtetxo betetzen dittu gaur. Musu bat famelixa guztiaren partez. Primeran pasatu!!!



Zorionak, **IRENE!!** Eguaztenian 5 urte beteko dozuz-eta. Askok maite zaittugu!!



Zorionak, **MARTI**. Hillaren 17xan, domekan, 2 urte beteko dozuz-eta. Patxo haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak **HAIZEA!!** Abuztuaren 27xan 6 urte bete zenuaz-eta. Patxua famelixaren eta, batez be, Izaro zure ahizparen partez.



Zorionak, **EKHI**, hillaren 9xan 6 urte bete zenuaz-eta. Patxo bat famelixaren eta, batez be, Kiraren partetik.



Zorionak, **MIREN eta NORA!** Uztaillaren 29xan eta abuztuaren 26xan 2 eta 5 urte egin dozuez-eta! Patxo haundi bana etxekuen partez.



Zorionak, **AMATXO** (Amama) eta **AITXA** (Aitxitxa), zuen 60. ezkon-urteurrenien. Domekan edarto ospatuko dogu. Musu haundi bana, famelixa guztiaren partez!!



Zorionak, **KEPA**, mutil haundi!. Hillaren 18xan 6 urte egingo dozuz-eta! Amama Edurnek eta aitxitxa Josuk musu haundi bat!



Zorionak, **AMELIA**, atzo urtiak bete zenuaz-eta. Ondo ondo ospatu! Musu haundi bat horren ondo zaintzen ditzuzun bezeruen partez.



Zorionak, **MARILO!** Ikusi deizun zure urtebetetziak ez garala ahazten. Zure lankidiak!

## Bittor Ariznabarreta Eguren

**1. URTEURRENA**  
2022/08/21

"...eta nik txoria nuen maite!"

**BETI GOGUAN, AITTA.**

## Josetxo Luis Escribano

2023/08/31

**Zure indarrak gure bihotzetan jarraituko du.**

- ETXEOAK -

# Iragarki laburrak



943 20 67 76  
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak [etakitto.eus](http://etakitto.eus) webgunean ere argitaratuko dira.

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

## 1. ETXEBIZITZA

### 1.1. Salgai

- Etxebizitza salgai Eibarko erdigunean. Guztiz berritua eta argitsua. Balkoia, 3 logela eta igogailuarekin. 634430647.

## 3. LOKALAK

### 3.1. Salgai

- Garajea salgai Amañan. 665726895 eta 688767198.

### 3.2. Errentan

- Garajea itxia alokagai San Pion. Zabala eta sarrera onarekin. 652775746.

## 4. LANA

### 4.1. Lan bila

- Gizonezkoa eskaintzen da edozein lanetarako. 614242172.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. 642084800.
- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 625200924.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 632881068.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta pintore edo peoi lanak egiteko. 632881068.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiri sozio-sanitarioarekin). Baita gauz eta jai-egunetan. 631425686.
- Emakume euskalduna eskaintzen da zainketa lanetarako (agiri sozio-sanitarioa) eta etxeko lanak egiteko. Baita orduka ere. Kotxearekin. 657794652.
- Neska euskalduna eskaintzen da goizez umeak zaindu eta

etxeko lanak egiteko. Esperientzia. 676553093.

- Neska euskalduna eskaintzen da haurrak goizez zein arratsalde zaintzeko. Esperientzia eta Magisteritza ikasketak. 648625209.
- Emakumea eskaintzen da goizez nagusiei lagundu eta garbiketarako egiteko. 643309687.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, kamarera edo sukaldari-laguntzaile jarduteko, eta etxeak edo bulegiak garbitzeko. 631102067.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, kamarera edo sukaldari-laguntzaile jarduteko, eta etxeak edo bulegiak garbitzeko. 641456656.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko (titulu sozio-sanitarioa) eta garbiketarako egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. 688805742.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 637222318.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta txakurrak pasiatzeko. 641756213.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta txakurrak pasiatzeko. 697958198.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko arratsaldez eta asteburuetan. 5 urteko esperientzia 8 urtera arteko umeekin. Ingelesa ere badaki. 691632453.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiri sozio-sanitarioa), baita ospitalean ere, eta etxeak garbitzeko. Erreferentziak. 667060292.
- Neska (albaitari laguntzailea eta etologoa) eskaintzen da zure animaliak zaintzeko eta paseatzeko. 617260605.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan eta ospitalean ere. 632768653.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiri sozio-sanitarioa). Esperientzia. Externa. 602490595.
- Gizonezkoa eskaintzen da edozein lanetarako: garbiketarako, eraikuntza, pintura... 641988643.

## 4.2. Langile bila

- Eibarko akademia batek euskara eta ingelesa maila altuko irakaslea behar du LHko partikularrak emateko. Bidali CVa: [info@itzamna.eus](mailto:info@itzamna.eus)
- Odontologo orokorra behar da Ermuko hortz-klinika bateko lan-taldean. Endodontzia eta odontopediatrian esperientzia baloratuko da. Bidali curriculum: [niklinika@gmail.com](mailto:niklinika@gmail.com)

## 5. IRAKASKUNTZA

### 5.2. Eskaintzak

- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

# Bueltan dira 10 Kia Egunak.

Irailaren 14tik 25era arte.



**KIA**  
Movement that inspires

Uakin ezazu teknologiak zein urrun eraman zaitzakeen, irailaren 14tik 25era 10 Kia Egunak itzuliko direla aprobetxatuz.

**KIA**  
NAIA CAR

📍 Apalategi, 1 EIBAR

☎ 943 70 70 33 🌐

[www.kia.com](http://www.kia.com)

WLTP CO2 lauri konbinatuak (g/km): 18-162. WLTP kontsumo konbinatua (l/100 km): 6,8-7,4. Kontsultatu promozioaren baldintzak eta betekizunak [www.kia.com/webgunean](http://www.kia.com/webgunean). Eskarntza honek Penintsulako, Balearretako, Ceutako, Melillako eta Andorrako Kia kontzesionarioen sarean balio du.\* Kontsultatu BUA berme-eskuburua.

E  
C






# IRAZABAL

---

## clínica dental



**Ainhoa Zulueta**  
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.  
**Euskal Herriko Unibertsitatea.**  
Unibertsitate Adua Aho Kirurgian,  
Periodontzian, Inplantologian,  
**Leongo Unibertsitatea.**  
Diplomatua Aho Kirurgian,  
**Bartzelonako Unibertsitatea.**  
Hortz-Estetikan Diplomatua,  
**Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.**  
Hortz-Estetikan Diplomatua,  
**Autran Institutua, Bartzelena.**  
Etengabeko Formakuntza,  
**New York-eko Unibertsitatea.**  
Oklusioan Graduondoa,  
**Anibal Alonso Doktorea.**

# Irribarreetan adituak

## Etor zaitez gu ezagutzera

Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak

JARRAI IEZAGUZU

 Facebooken: Clínica Dental Irazabal [www.clinicairazabal.com](http://www.clinicairazabal.com)



**IRAZABAL**  
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1 esk. - **20600 EIBAR**  
Tel.: 943 20 85 52 - [www.clinicairazabal.com](http://www.clinicairazabal.com)